

OGI TXIGOR PRESTATZAILEA

BEZEROEKIKO HARREMANAK



Gure proposamenak aurrera jarraitu dezan, produktutik etekinak atera behar ditugu, hau da, dirua lortu behar dugu produktua salduz. Horretarako, bezeroak erakarri egin behar dira metodo ezberdinen bitartez. Guk, publizitatea egitea, etxeetan produktuaren iragarkiak banatzea eta beste marka ezagun batzuekin elkartuta lan egitea erabaki dugu. Beste alde batetik sare sozialetan ere gure produktua promozionatuko dugu eta google-ko webgune desberdinetan gure iragarkia agertuko da. Azkenik, gure produktua denda fisiko baten saltzea bezeroak ekarriko dizkigu, denda hori bere bezeroentzat fidagarria baita. Hau eginda, bezero berriak lortuko ditugu.

Honen ostean, bezeroak gure proposamenari lotuta mantentzea beharrekoa da, eta horretarako, hainbat ekintza aurrera eramane behar ditugu; laguntza pertsonalak eskainiko ditugu behar izanez gero eta etxeetara iristean produktua gu beraiekin jarriko gara kontaktuan izan duten esperientzia guri jakinarazteko eta arazorik izan duten jakiteko.

Horretaz gain, bezeroak gurekin harremanetan jarri ahal izateko bi modu izango dute:

Batetik, webgune bat sortuko dugu, gure produktuaren sail ezberdinak azalduko dituenak, webgunean bertan agertuko da gurekin kontaktuan jartzeko emaila eta telefono zenbakia. Webgunearen bitartez, bezeroek on-line erosteko aukera izango dute. Horretarako, on-lineko katalogo bat egingo dugu gure bezeroei laguntza eta informazioa eskaintzen.

Bestetik, lokal bat alokatuko dugu Gasteizen denda bezala erabiltzeko, eta bertan, bezeroek produktuak zuzenean erosi edota dituzten edozein zalantza galdetu ahal izango dute. Horretaz gain, Euskal Herriko beste hiriburuetan etxetresna elektrikoak saltzen dituen denda bat egongo da gure produktuak saltzen.